

## **SARRERA**

Ekoteam enpresak garatu gabeko herrialdeetarako haziez betetako kaxak egitea du helburu. Honen bidez, hainbat herritarren bizi kalitatea hobetzen lagunduko litzateke, eta elikagaien eskuragarritasuna erraztuko litzaieke. Produktua garatu eta aurrera ateratzea posible izateko, ONG-ekin lanean aritzea da aukerarik egokiena, produktua dohainik eskainiz.

Hasiera batean, jendearen finantziazio eta laguntzari esker lortuko litzateke kaxak eta hazien erosketak bermatzea, horretarako webgune ireki bat izango da eskuragarri. Behin proiektua martxan delarik eta arrakasta duelarik, beste enpresa batzuen interesa bada, hauekin egingo litzateke lotura. Horrela, hauei produktua salduko litzaieke eta irabaziak lortzen hasiko litzateke Ekoteam.